

2020KO URRIAREN 1EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bat

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hoge.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- AITOR ALDASORO ITURBE
- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. Aurreko akten onespena: 2020-06-29 eta 2020-07-30.

Aho batez onartu dira beraiekiko zer esanik ez dagoenez.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- ERAGOZPENA EBAZTEA ETA KREDITUAK JUDIZIOZ KANPO AITORTZEA.
2020ERET0008

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- Udaleko kontuhartzaileak S8/2020 eragozpen etengarria eman du, eta hori ebaztea Udalbatzari dagokiola adierazi du.

2.- Eragozpenaren xede diren fakturei dagozkien zerbitzuetako arduradun teknikoek justifikazio txostenak egin dituzte, eta zerbitzuak, obrak edo hornidurak benetan gauzatu direla adierazi dute.

3.- Jurisprudentzia errepikatua izatea, partikularrek Udalaren eskariz benetan egindako prestazioen ordaina jasotzeko duten eskubidearen alde, eta administrazio publikoa bidegabe aberastea saihestea.

Azaldutakoa kontutan izanik, Udalbatzaren onespenerako aurkezten da ondorengo

PROPOSAMENA

1.- Udal kontuhartzaileak jarritako S8/2020 eragozpenaren ebazpena, kredituen judizioz kanpoko aintzatespena onartzen duena, 2020ko aurrekontuan a) eta b) tauletan zerrendatutako gastuak aplikatu ahal izateko, dagokion kreditu aldaketa espedientearen bidez.

2.- a) eta b) tauletan zerrendatutako gastuak onartu eta dagokion kreditu aldaketa onartzen denean gastu horien ordainketa agintzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “La no consignación previa es una práctica irregular. Nos vamos a abstener. Ciertamente los trabajos hay que abonarlos pero ante todo tiene que ser un actaur transparente. Hay gastos que abonar sin consignación presupuestaria y no cabe más que efectuar modificación de créditos.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Alternatiba gutxi geratzen da, obrak benetan egin badira. Txosten teknikoetan garbi azaltzen da arrazoiak zeintzuk diren. Administrazioak berak hobetzeko dituen mekanismoetan oinarrituta dago. Partida handiena Usurbe antzokiari dagokiona da. Exekuzioa amatu gabe egonda, obra zuzendaritza beste bati eman behar izan genion. Merkeenak oztopa besterik ez zuten ikusten. Orain ekartzen dugun herramienta legezkoa da, erantzuna eman ahal izateko. Ordaintzeko, noski baina legearen barruan. Bestea da ezer ez egitea. Aurrekontu hitzak hori esan nahi du, hain zuzen ere, aurreikusi egiten da. Horrelako obretan askotan ez da erraza izaten, ustekabeak azaltzen direlako. Orain pasatu da eta aurrerantzean ere pasatu daiteke. Kontua da nola saihestu dezakegun egindako lan bat ordaintzea. Bidea hau ez bada, zein da beste aukera?. Guk ez badugu ordaintzen egindako lana, hurrengo erreparoa izango da ez dugula ordaintzen !.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Horrelako kasuetan kontratu legeak aurreikusten du jarraitu beharreko prozedura zein den. Dokumentazioa aztertuta eta kontsulta pare bat eginda, ondorioak garbiak dira. Puntu honetara iritsi bagara, kontratu-Legean jasotakoa ez delako bete da. Adituak ez garenontzat ere, erraza da. Horrelakoa obra batean gehikuntza egon ezker, obra geratu egin behar da eta kontratua aldatu. Kontuhartzailearen txostenak oso garbi esaten du. Baina hori ez da egin eta horregatik gaude puntu honetan. Udal gobernu honek joera hori badu. Ez da oso popularra obrak gelditzea, baina aukera badago eta aipatu duzu aurrerantzean ere horrelakoak emango direla. Hurrengo hilabeteen, Urbialdekoa izango da. Argi dagoena da kudeaketa txarraren ondorioa dela. Korrika eta presaka egiten direnak ez dira normalean ondo ateratzen eta hauek horren adibide garbiak dira. Nolabait ere remanentearekin salbatzen gara. Zuk esan duzu aurrekontua, aurreikusita egotea dela baina gauza hauek ez zeuden aurreikusita. Arazoak egon daitezkeela sumatzen denean, badaude bideak horiek saihesteko. Orain gertatzen dena da, justifikazio hau kontuhartzailearen esku uzten dela edo plenoaren esku. Guretzat prozeduretan hanka sartzea besterik ez da. Egia da fiskalizazio aldetik geroz eta zorrotzago jokatu behar dela eta eskerrak!, zeren eta ohitura dago kontratu txikiekin eta ebazpenen bidez funtzionatzeko. Udal gobernuari eskatzen diogu, diru publikoa kudeatzen ari den heinean, ardura gehiago izan dezan honetara ez iristeko. Gu ere abstenitu egingo gara, izan ere ordainketak egin behar dira langileak eta enpresak tartean daudelako, baina kudeaketa aldetik ezezko potolo bat dela esango genuke”

Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV): “Nire gustatuko litzaikuge Usurba antzekiko obraren inguruan memoria pixka bat egingo bagenu. Gogoratu behar dugu proiektua martxan jarri eta obra zuzendaritzarekin zein arazo egon ziren. Obra zuzendaritza proiektuaren egilea zen eta lote guztiak Asturiaseko enpresa horrek eraman zituen. Bide erdian aurkitu ginen obra zuzendaritza eta kontratistaren arteko desadostasun larria zegoela. Desadostasun horiek gairitu genituen oposizio eta alderdi politiko guztien adostasunekin, lehenetsiz obrak aurrera jarraitu behar zutela. Udara zen eta denontzat garrantzitsuena zen iraila edo urrirako obra horiek bukatzea. Obrak bukatu ostena eta bertan bisita bat egin genuenean, denok izan genuen aukera obra zuzendariarekin egoteko eta denok entzun genuen esandakoa: *“orain arte nire helburu nagusia izan da obrak bukatzea, orain hasi beharko dut obraren likidazioarekin, ikusi aurreko obra zuzendaritzak ateratako zenbakiak eta ondoren guk atera ditugunak*. Beraz, gertatukoa salbuespena da eta legezkoa. Bestela judizio batean elkartuko ginатеke. Lan hori egin dute eta ordaindu beharrean gaude. Ez da ohiko eta plena ekartzen dugun

espediente mota bat. Denok dakigu legea geroz eta zorrotzagoa dela. Orain arte horrelako zerbait pasa izan denetan, kontuhartzaileak berak hartzen zuen erantzukizun hau, baina orain berak egin du erreparo txostena eta tekniko bakoitzak eman dituzte dagozkien txostenak eta orain udalbatzari dagokio ebaztea. Nik hala ere, gogoratu nahi dut zein testu inguruan jarri ginen obrak amaitzeaz zeudenean eta aurreikusitako genezakeen zerbait pasa zitekeela.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Ez gara obra batetaz bakarrik ar. Erauskin plazakoa eta Urbialdekoa ere hor daude. Salbuespena aipatu duzu baina bi hilabetetan hiru obra dira, hain zuzen ere, lehengo urtean egin ziren obra nagusiak. Guri atentzioa ematen digu puntu honetara iristea, kontratu legeak beste prozedura bat jasotzen duelako.”

Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ-PNV): “Garbi daukat ezkutukeriarik ez dagoela eta kontua bada hemendik pasatzea, nahiago dut hau Usurbe antzokia hiru hilabete itxita egotea baino. Obra geratu, gero esleipenak egin..., Urbialden zer esanik ez!. Urbialde bost urteko obra bat da. Zorionez ez da beti pasatzen.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Eskatuko genuke gauzak ondo egitea. Obrak geratuta egon behar badira, geratu daitezela naiz eta oso popularra ez izan, baina fiskalizazioa tartean dela egokiena hori izango litzateke. Denok nahi genuen obra bukatzea baina guk behintzat ez genekien puntu honetara iritsi behar ginenik.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PMV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

b.- ONDORENGO LANPOSTUAREN MONOGRAFÍA ETA BALORAZIOA ONARTZEA: LURRALDE SAILEKO KOORDINATZAILEA. 2020PEBO0038

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

Lehenengoa.- Beasaingo Udaleko langileen plantillak eta Lanpostuen Zerrendak udalaparejadore lanpostuaren aldaketa jasotzen dute.

Bigarrena.- Dokumentu horietan inplementatutako lanpostu berriari buruz (jarraian zerrendatzen dira), baloratu diren monografiak idatzi dira: Lurralde Arloko koordinatzailea.

Hirugarrena. Lanpostu hori ordaintzeko erabakia, langileen ordezkariarekin, Balorazio Mahaian egindako bileran, 2020ko uztailaren 16an hartutakoa. Akordio horretan, baloratu beharreko lanpostuaren monografia eta udalerakundeen ordainsarien esparrua hartzen dira kontuan, eta emaitza hauek lortu dira: Lurralde Arloko koordinatzailea:

Soldata: A2 taldea

C.D.: 22

C.Espezifikoa: 27.091,79 €/ urte.

Lanaldi Bereziko Osagarri espezifiko bat proposatzen da, lanpostuaren baldintza bereziak ordaintzen dituen, ohikoa baino lanaldi luzeagoa egiteko eskakizunari dagokionez, zehazki, lanaldi luzatuaren modalitateari dagokionez.

Lanaldi luzatuko modalitateak urtean benetan lan egindako 93 ordu gehiago saritzen ditu, eta lanaldi zatituko erregimenean eta txanda-erregimenean egin ahal izango dira, larunbatetan eta jaiegunetan lan egitea barne hartuta, erakundeak hala erabakitzen badu.-

Lanaldi luzatua duen lanpostuak kontzeptu horrengatik soldata, lanpostumailako osagarria eta tarte orokorreko berariazko osagarria batuta.

Goian aipatutako aurrekariak ikusi eta gero, Antolakuntza Batzorde honek, arlo honetan eskumena duen organoari eramaten dio ondorengo:

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehen.- *Proposamen honi erantsita doazen eta aipatu diren postuen monografiak onartzea.*

Bigarrena.- *Proposamen honen aurrekarietan jasotako baldintza berdinetan, ondorengo postuaren balorazioa onartzea."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritziz hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "No estamos a favor de la propuesta. No vemos bien que el aparejador sea el coordinador de urbanismo y de obras y servicios."

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Gu kasu honetan lanpostuaren balorazioarekin ados gaude iruditzen zaigulako eman behar den pausoa positiboa izan daitekeela. Faltan botatzen duguna da balorazioa zehatzagoa izatea. Funtzioak modu sinplean azaltzen dira, baina egiten den proposamenarekin ados gaude."

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): "Guk ere ikusten dugu aukera bat izan daitekeela. Gaur egungo egoera ez da egoerarik onena. Behar bada pertsonen erantzuten dien egoera da eta ez ikuspegi orokor bati. Guretzat lurraldeak ezin ditu zerbitzuek alde batetik eta hirigintza beste alde batetik eduki. Jubilazio bat ematea doa eta aukera bat da, lurraldean eman beharreko lehen pausoa ematea. Arkitektoak ere hitz egin dugu behin baino gehiagotan eta iruditzen zaigu arduradun honek marraztu behar duela zein diren lurraldeko beharrak. Ez dakigu juridiko bat den, ikusten dugu bi egunez arkitekto batekin funtzionatzen dela. Gabeziak ikusten dira baina iruditzen zaigu sartu behar duen pertsona honek marraztu behar duela. Lurralde osoak ikuspegi bat izan behar duela ikusten dugu eta ez bi zati. Hori da arrazoi nagusia."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)
Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c.- 2020KO PLANTILLA ETA LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Aurreko puntuari lotuta dator, hain zuze ere, proposatzen dena da plantilla eta lanpostu zerrendaren aldaketari hasierako onespena ematea. Plaza aparejadorearena izaten jarraituko luke eta horren ondorioz aparejadore funtzioak beteko lituzke, baina lanpostua izango litzateke: Lurralde areako koordinatzailea. Beraz, hirigintza eta zerbitzu azpisaileko antolakuntza funtzioak gehituko litzaioke. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeetako aparejadoreak parte hartzeko aukera izango dute. Arkitekto teknikoa izateaz gain 4. Hizkuntza eskakizuna izan behar du.

Hitz egiteko txanda eman ondoren honleko iritziak azaldu dira

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): Estamos en contra de la modificación por el sistema de provisión que se prevé".

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Aurreko puntuan adostasuna azaldu dugun bezala, oraingoan aurka azalduko gara bi arrazoi hauengatik: guri iruditzen zaigu aukera paregabea zela behingoz Beasaingo Udalak bere plantilan arkitekto bat izateko. Beasainek dituen dimentsioarekin koordinatzaile hau arkitekto bat izan beharko lukeela. Ez dugu ulertzen nola ez den aprobetxatzen behingoz aukera hori emateko. Koordinatzaile honek jakituria eta eskumenak izango dituela ez dugu zalantzan jartzen baina adibidez obra handietako txostenak emateko ez du eskubiderik izango, beste gauza batzuen artean. Orain bezala azpikontratazioaren beharra jarraituko du arkitektoarekiko eta horrek desadostasunak, aukeraketa zalantzazkoa izatea etab. Horiek bertan behera utzi behar dituzuela iruditzen zaigu, Progilaren aldetik ez dugu ikuste arkitekto teknikoaren figura nahikoa denik, lanpostu hau betetzeko. Ez pertsonaren balio-ezagatik baizik eta aukera paregabea galdetzen delako arkitekto bat bere eskumen guztiekin udalean izateko. Bigarren puntua desadostasuna adierazteko aukeraketa modua da, hain zuzen ere, meritu lehiaketa bidez."

Jarraian Hasier Agirrek Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu) aipatzen du 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, eta esaten du 61,6 artikulua arabera, 61.6 artikulua arabera karrerako funtzionarioak hautatzeko sistemak oposiziokoak eta lehiaketa-oposiziokoak izango direla eta salbuespen gisa, lege bidez bakarrik aplikatu ahal izango dela lehiaketa-sistema. Hori dela eta galdetu du ea zein lege aplikatzen den proposatzen dena legez babesteko

Udal aldizkariak azaldu du egindako legezko aipamena horrela dela eta horrela adierazi zela berak emandako lehenengo txostenean. Txosten honetan azaldu zen plaza betetzeko zein aukera dauden baina txosten horrek ez zion antolakuntza sailak proposatutakoari (lan postua hornitzea) erantzuna ematen eta hori da bigarren txostena ematearen arrazoia.

Bi txosten horien artean ez dago kontraesanik, lehenengoak plaza nola bete daiteken azaltzen du, bigarrenak, aldiz, lanpostua nola hornitu daiteken. Txostenak ezberdinak dira eta horren ondorioz bakoitzean aipatzen diren oinarri juridikoak ere bai.

hau guztia ulertzeko bigarren txostenean aipatzen dira zeintzuk diren plaza eta lanpostuaren arteko diferentziak.

- Plazak plantillan islatzen dira.
- Lanpostuak, lanpostuen zerrenda.
- Plaza, langilearena da, hau da, irabazi duenarena.
- Lanpostua, langilearen “eserlekua” da eta funtzio batzuk atxikita ditu.
- Plaza, oposizio edota oposizio-lehiaketa bidez betetzen da.
- Lanpostua, merezimendu edo izendapen librearen bidez hornitzen da.
- Plaza betetzeko, enplegu eskaintza publikoan aurreikusi behar da eta onartu eta GAOean argitaratu ondoren, oinarriak onartzen dira epea emanaz eskaerak aurkezteko.
- Lanpostua hornitzeko ez da enplegu eskaintza publikoa onartu behar, bakarrik deialdia GAOean argitaratu behar da.

Proposatzen dena da lanpostu berria (lurraldeko koordinatzailea) hornitzea eta EZ plaza betetzea.

Lanpostu berriaren horniketa lehiaketa merituen bidez egingo litzateke, Euskal Autonomia Erkideko Toki erakundeetako A2 arkitektoen eta 4. Hizkuntza eskakizun profila dutenen artean.

“Lurraldeko Koordinatzaile” lanpostua merituen lehiaketa gainditzen duenak, lanpostua hornituko luke eta bidez batez plaza beteta geratuko litzateke, lanpostua lortu duenak aparajadore plaza beste administrazio batean gaindituko izan zuelako eta horren ondorioz ez du hautaketa-prozesu berri bat gainditu behar plaza betetzeko.

Kasu honetan aukeratu den figura, *administrazio arteko mugikortasuna* izan da, hain zuzen ere, lege hauetan oinarritua dagoena:

- Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 57. Artikulua.
- urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 81. eta 84. Artikuluak.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako funtzionarioak hornitzeko erregelamendua.. 6. art. eta hurrengoak

Hasier Agirrek Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Argitu duzu nahiz eta gure aldetik pixka bat gehiago begiratu zalantzak ditugulako. Hala ere hori zen azalpen teknikoagoa baina gure balorazioa politikogoa da. Honek gogoratzen digu beste udaletxe honetan eman den beste kasu bat, udaltzainburuaren hautaketa prozesua, alegia. Honek itxura guztia du lehenengo pertsona aukeratu dela eta gero bidea egokitu dela pertsona hori lanpostu horretara iristeko. Orduan ere hori salatu genuen eta honi ere susmo berdina hartzen diogu, Bai profilarekin ados ez gaudelako eta ezta aukeraketa moduarekin ere, puntu honetan kontrako botoa emango dugu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Susmoz hitz egiten duzuenean 2011-2015 legealdia datorkit burura eta arkitektoaren izendapena. Susmoak susmo, lehiaketa bat da, irekia da eta edozeinek hartu dezakete parte, profil bat zuenak. Kasu hartan udaltzain-burua behar zuen izan eta bakarrik aurkeztu zen nahiz eta Autonomia Erkidegoan zegoen norbaitek aurkeztu zezakeen bere burua. Kasu honetan, teknikoki ematen diren erantzunak ulertzen saiatu. Horren gainetik esan gure hausnarketa dela Beasaingo herria %85etan garatuta dagoela eta mantenuak geroz eta indar gehiago hartzen ari dela eta beharbada profil horri lotutako pertsona bat kontratatzea askoz ere interesgarriagoa dela. Horri gehitu behar zaio Administrazioa hartzen ari den bilakaera. Guretzat balio erantsia da Administrazioa ezagutzea eta ahal dela Administrazioan lan

egindako jendea izatea. Inor aurkeztuko ez balitz, beste pauso bat eman beharko genuke baina balego urte asko irabaziko genituzke. Guretzat ahalik eta azkarren burutzen bada, hobe. Kasu honetan lehiaketa irekia da eta azterketak gainditu beharko dituzte. Bermea ematen zaio Administrazioan lan egiten duen edonori, hizkuntza eskakizuna eta ezaugarriak dituenari aukera emateko.”

Hasier Agirrek Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Esan duzun bezala, Beasaingo Udalak gabeziekin jarraituko du eta arkitektoa kontratatu beharra ea etengabe. Guri iruditzen zaigu Beasaingo Udalak behar duela arkitekto bat eta baita ere aparejadore edo ingeniari bat eta ingurugiroko teknikaria. Hortik aterako litzateke koordinatzailea. Ekipo hori osatu eta gero. Kontratatzen denaren arkitektoaren goitik egongo dena izango da bera baino baxuago dagoen pertsona. Beno, hori zilegi bada. Aukera paregabea galdu behar dugu Beasainek urte batzuetarako plantilan arkitekto bat izateko”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Guk eguneroko esperientzia kontuan izanda, zalantzan jartzen dugu bost egunetarako arkitekto bat behar den. Ez duena zentzurik da bi egunerako egon behar badu horrelako ardura ematea. Gaurko egunean bi egunekin hemengo lana atera egiten da. Orain arte ere aparejadorea egonda eta RPTak horretarako aukera ematen digu. Ikusiko dugu asmatzen dugun edo ez.”

Hasier Agirrek Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Bi egun, baina arkitekto horrek koordinazio lana ere egin dezake. Aparejadoreak adina ahalmena eta ezagutza izango du koordinaziorako ere, gainera jakinda arkitekto asko direla administrazioan lana egin dutenak eta mundu hau ezagutzen dutenak. Egundoko aukera galdu behar dugu!”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO LARRIALDIETARAKO EDO EKINTZA GIZATIAURRENTZAKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2020DEBS0004

Ondorengo proposamenaren berri eman da:

“

AURREKARIAK

1. Badira jadanik legealdi batzuk non Beasaingo Udalak lankidetzaz egitarau ezberdinei bere aurrekontuko diru-sarrerara arruntetik %1a zuzentzen duela.

*% 70 garapen-proiektuetara (% 45 Euskal Fondoa eta % 25 Garabide)
- % 15 larrialdietarako laguntzetarako edo ekintza gizatiarrentzako.
- % 7 hondamendiak gertatu diren edo garatzeko bidean dauden herrialdeetatik datozen haurren aldi baterako laguntzei*

- % 8 Herriko gazte lankideentzako beketara

II- 2020.481.230.20.01 kontusail espezifikoa 50.000 euroko kreditua kontsignatu zen lankidetza-jardueretarako honela banatzeko:

- a) 25.000€ garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako
- b) 13.332,50€ Beasaingo gazte laguntzaileentzat bekak emateko.
- c) 11.667,50€ garatze bidean edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programarako.

-2020ko martxoaren 18an GAOean argitaratu ziren garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldiko harrera programaren oinarriak eta 2020ko martxoaren 23an Beasaingo gazte laguntzaileentzat beken oinarriak.

GAOean martxoaren 18an eta 23an argitaratu ziren c eta b ataleko oinarrietako 3. artikuluan esaten zen: "b eta c ataleko laguntzei dagokienez, aurkeztutako eta emandako eskaeren ondorioz ez bada agortzen horietarako aurreikusitako kreditua, geratzen den zenbatekoa larrialdietarako laguntzetarako bideratuko da".

Bi kasuetan eskaerak aurkezteko epean, ez da eskaerarik izan, beraz bi atal horietako kreditua (25.000€) erabili gabe geratu da, eta horren ondorioz kreditu hori garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzeko laguntzetarako erabiliko da, hau da, 0220.481.230.20.01 kontusail espezifikoa kontsignatu zen aurrekontu osoa: 50.000€

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

-Euskal Herriko 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

-Garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako 2020ko laguntzen oinarriak onartu eta GAOean argitaratu."

Bozketa eginda, aho batez onartu dira ondorengo oinarriak:

GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO LARRIALDIETARAKO EDO EKINTZA GIZATIARRENTZAKO LAGUNTZAK 2020

1.- Xedea

Oinarri hauen xedea larrialdi kasuetan daudenentzako edo ekintza gizatiarrak egiteko laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrean daudenek dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertze ezkor guztiak.

2.- Aurrekontua

1 0220.481.230.20.01 kontusail espezifikoan 50.000 euroko kreditua kontsignatu zen, lankidetza-jardueretarako honela banatzeko:

a)25.000€ garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako.

b)13.332,50€ Beasaingo gazte laguntzaileentzat bekak emateko.

c)11.667,50€ Garatze bidean edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programarako.

2020ko martxoaren 23an eta 18an GAOn argitaratutako Beasaingo gazte laguntzaileentzat beka oinarrien eta garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programaren oinarrien hirugarren artikulua honako hau ezartzen du: "b eta c ataletako laguntzei dagokionez, aurkeztutako eta emandako eskaeren ondorioz ez bada agortzen horietarako aurreikusitako kreditua, geratzen den zenbatekoa larrialdietarako laguntzetarako bideratuko da". Eskabideak aurkezteko epean ez da eskaerarik izan, beraz, laguntza hauetara zuzendutako kreditua ez da erabili eta deialdi honetan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko erabiliko da.

3.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntza edo erakunde izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra EAEan baldin badute.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeak ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...)

4.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- *Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.*

- *Laguntzea eskatzen den larrialdiko egoerari buruzko txosten zehatza. Txostenak, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du.*

Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik (zeharkako gastuak kontutan izan gabe) gehienera, %10a bideratu ahal izango da erbesteratutako langileen gastuentzat (bidaiak, dietak, e.a. barne) eta zeharkako gastuentzat %7a.

- *Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.*

- *Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.*

- *Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.*

- *Deialdi hau egin duen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du diru-laguntza eskatu duten pertsona edo enpresek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela. Horretarako pertsona horiek espresuki oniritzia eman beharko dute. Oniritzirik ez badute ematen, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte interesatuek.*

5.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da 2020ko azaroaren 30a arte.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

6.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako diru-laguntzak hainbanatuta emango dira diru-laguntzaren onuradunen artean, aurkeztutako proiektuaren zenbatekoaren arabera (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikulua).

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate azpiarloak txosten bat egingo

du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkatetzari hark ebatz dezan. Eskaerak aurkeztu diren heinean ebatziko dira.

Beasaingo Udalak Gobernu Kanpoko Erakundeak eskatutako diru-laguntza osoa ez ematea proposatuko balu, edo eta aurkeztutako proiektuan aldaketak egongo balira (proiektuaren exekuzioan, diru-sarreretan edo/eta gastuetan, e.a.) erakunde eskatzaileak aldaketa hauen berri eman beharko dio Beasaingo Udalari lehenbailehen eta proiektuaren eta aurrekontuaren birformulazioak aurkeztu beharko dizkio. Beasaingo Udalak proiektuaren aldaketa aztertu ondoren ebazpen berri bat eman ahalko du.

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi behar zaio.

7.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen antolakuntza orori, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epe-amaieratik zenbatutako 2 hilabeteko epean.

8.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

9.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Onartutako zuzeneko gastuen kopuruaren transferentzia egin izanaren frogagiria. Froga-agiri horretan, transferentziaren kontzeptuan hain zuzen ere, proiektuaren izena eta proiektua aurrera eramango den herrialdearen izena azalduko dira.

2. Diru-laguntza zurtzeko garaian kontuan hartu beharreko kopurua lagunduko den proiektu osoarena izango da. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz aurkeztu beharko da, gastuen zerrenda xehatua eta dagozkion faktura originalak edo kopiak behar bezala legalizatuak (Beasaingo Udalak zigilatu ditzan).

Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeek ez dute fondoen erabilera justifikatzeko fakturarik aurkeztu beharko (Emandako diru-laguntzaren Faktura Bakarraren originalaren aurkezpena egin beharko dute), nazio Batuetako agentzien funtzionamenduari buruz erabakitako berariazko kontabilitate-kontrola nahikoa justifikazio dela ulertzen delako.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

10- Egiaztatze epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, diru-laguntzaren deialdiko urtearen hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

11- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

4.- MOZIOA. Beasaingo EH Bilduk aurkeztutako mozioa COVID-19aren pandemiagatik herrialdeetan sortutako osasun krisia.

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Guk kontramozio bat genuen eta azken orduan pasatu zaio EH Bilduri. Proposatzen dugu kontramozioa aztertzeko denbora emate arren (nahiz eta Batzar Nagusietan eztabaidatua izan), bertan behera utzi eta hurrengo udalbatzan aurkeztea.

5.- BERRI EMATEA:

- 2020ko uztailaren 27tik uztailaren irailaren 27ra bitarte emandako Ebazpenak.
- Kontratu txikiei buruz, 2020ko uztailaren 27tik irailaren 27ra bitarte emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira aipatutako Ebazpenak.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan honelakoak aurkeztu dira:

ERASOA

Yolanda Hernandez Rodriguez (Beasaingo EH Bildu): “Orain dela aste pare bat jasatze matxista izan da. Herritarren batzordean kasu hau aipatu genuen eta jakin nahi duguna da Udalak zein pauso eman dituen, neskarekin harremanetan jartzeko, hemendik aurrera zein pauso emango diren eta zein den egiten den balorazioa.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Esan behar da irailaren 12an jaso nuela, mezu bat eta gizonaren argazkia, sare sozialetan jarritako salaketarena. Udaltzainburuarekin harremanetan jarri nintzen egun horretan bertan eta irailaren 14an, Ertzaintzaren ikerketa buruak telefonoz deitu zuen baieztatuz salaketarik ez zegoela, gizonezkoa nor zen eta non bizitzen. Neskaren helbidea ere zein zen partekatu genuen Ertzaintzarekin. Hurren egunean, irailaren 15ean emakumeak salaketa jarri zuen. Epailak irailaren 17an, “kautelazko neurriak”, jarri zituen eta agindu zion gizonari 50 metroko distantzia mantentzeko, bere etxebizitza eta lantokiatik. Ongizate saila jakinaren gainean jarri genuen eta neskak irailaren 21ean txanda eskatu zuen eta partekatu genuen gure esku zegoen informazioa. Berdintasunetik ere harremanetan jarri dira eta dirudienek berak aipatzen duena da beldurra duela. 50 metro horiena jarraipena egiteko ertzainek aldetik bigilantzia dago. Emakumeen aurkako indarkeri bezala ez egotea, baizik eta akoso izatea, gure protokoloetatik kanpo geratzen da. Horrek ez du ertzainek duten protokoloan jarraipena ez egitea pasatzen denari buruz. Jarraipen hori egiten ari da eta momentuz ez dugu inolako berririk.”

Yolanda Hernandez Rodriguez (Beasaingo EH Bildu): “Irailaren 17an gizarte ongizatekoekin harremanetan jarri nintzen eta beraiek esan zidatzen ez zutela inolako

daturik. Biktimarekin elkartu nintzen eta esan zidan berarekin inor ez zela harremanetan jarri eta inork ez ziola laguntza eskaini. Zita eskatu du gizarte ongizatean eta gaur berdintasun teknikariarekin harremanetan jarri naiz jakiteko zein pauso eman diren. Teknikariak ez zuen esta beraren telefonorik ere!. Nik esan diot telefonoa zenbakia zein den eta neskak deitu dio berdintasun teknikariari, baina ez du lortu hitz egiten. Dena dela esan behar da, nahiz eta gizarte ongizatekoek eta berdintasun teknikariak berarekin harremanetan ez jarri (hori faltan botatzen du), gizarte ongizateetik emandako zerbitzua oso ona izan dela eta bera oso pozik dagoela izan duen arretarekin.

Honen guztiaren aurrean jakin nahi dut salaketa publikorik egingo den (berak hori nahi du baina noski, berari esan behar zaio). Ez dakit prozedura ondo eraman den ala ez.”

Amets Arrospide Zubeldia (EAJ-PNV): “Protokoloa ez da martxan jarri, ez delako indarkeria matxista izan.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Nik uste dut horrelako kasuetan litekeena da Administrazioa oso administrazioa izatea. Zorrotz aztertzea eta indarkeri protokoloan sartzen ez denez, protokolo hori martxan ez jartzea. Zu neskaren laguna izanda, udaletxera laguntzea, ba ezkertzekoa da, berak eta guk. Tokatzen dena da pertsona babestea nahiz eta protokoloaren barruan egon. Udalak baditu bere zerbitzuak eta udalera gerturatzea zuek edo guk, ondo dago. Beste gauza bat da epaileak esatea indarkeria ez dela baizik eta akosoa. Pentsatzen dut marra oso fina dela eta erraz gainditu daitezkeela. Garrantzizkoa da bai udaltzainen eta baita ere ertzainen aldetik gizon hau bigilatuta egotea eta jarraipena egitea jakiteko nondik nora dabilen, berriz ez gertatzeko. Horitx aurrera salaketa egin nahi duela?. Aholkatu digute Aldunditik hal den heinean maiz ez egiteko horrelako agerraldiak, aurkako efektua sortu dezakeelako. Pentsatzeko modu hori subjektiboa izan daiteke baina ez gara herri bakarra salatze hori egiten ez duguna “efecto llamada” hori suertatu daitekeelako. Teknikoak daude horretarako ere eta zenbait buru hainbat aburu. Pertsona da erdian jarri behar duguna eta ez nik esan dut, harek esan du...Protokoloak ez badu jasotzen saiatu gaitezen beste era batetara babesten!.”

Yolanda Hernandez Rodriguez (Beasaingo EH Bildu): “Nike san nahi dudana da protokoloaren barruan ez egoteagatik obligazio legala ez izan, etikoki babestu egin behar dela. Neska honek babes hori behar zuen. Ez da nire laguna. Ni hurbildu naiz berarengana udalean nagoelako. Berak eman ditu pauso guztiak guk esan diogulako. Gizon honek ez dio bakarrik berari eraso egin eta horregatik nahi du publiko egin. Herrian badago jende gehiago gertatu izan zaiona eta ematen du normalizatuta dugula, Nahiz eta protokoloan jasota ez egon, horrelako gauzak salatu egin behar dira. “Efecto llamadarekin”, nik nere zalantzak ditut. Ematen du edozeinek egin dezakeela nahi duena eta gu ez gara horren aurka azaltzen.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Aurka ez gara jartzen baina baliabideak jartzen ditugu berriro pasatu ez dadin.”

Yolanda Hernandez Rodriguez (Beasaingo EH Bildu): “Bai baliabideak jarri, baina gu jarri behar gara berarekin harremanetan. Esatea gizarte ongizateetik informazioa jaso dutela zuek eman diozuelako, gezurra da.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Nike z dut horrelakorik esan edo ez nuen esan nahi. Nik esaten dudana da berdintasun teknikaria eta ongizate zerbitzua jakinaran gainean zeudela. Horrelakoak ematen direnean departameto artean partekatzen dute informazioa eta adosten dute nola jokatu. Kasu honetan gainera, epaia dago eta epaiak markatzen ditu zeintzuk diren segurtasun neurriak. Esatea kasu asko daudela

eta hori normalizatuta dagoela. Nire ustez zorionez, ez. Salaketak jartzen badira, agian kontrakoa pentsatuko dut.”

Yolanda Hernandez Rodriguez (Beasaingo EH Bildu): “Goierriin dago protokoloen koordinadora bat eta talde horretako kide batekin harremanetan egon naiz eta berak bai ikusten du, kasu hau protokolo horretatik kanpo badago ere, akatsak egon direla, hala nola, informaziorik emane ez izatea udalean dauden aukereekiko. Nire ustetan protokoloa errebisatu egin behar dela eta horrelako kasu baten aurrean erabaki salaketa publikoa egin behar den ala ez. Hori protokoloan markatu egin behar da.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Salaketa publikoa berak egin zuen. Ados nago protokoloak errebisatzearekin. Horrelako gauzak erakusten ditu protokoloa itxiegia dela eta horrelakoak ere kontuan izan behar direla. Hiru aldiz edo protokoloan aldatu dira baina ez dut esaten ez direla berriro aztertu behar.”

Yolanda Hernandez Rodriguez (Beasaingo EH Bildu): “Zuek salaketa publikoaren alde zaudete?”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Nik bapatean erantzuteko ez nago. Aztertu egin beharko dugu. Logikoa izango litzateke, berak publikoki salatu nahi badu eta horretarako udala erabili nahi badu, guregana zuzentzea.”

Malu Vallés Fernández (EAJ-PNV): “Yo creo que deberíamos hiir de personalismos y acercar la cerilla a nuestra vela. Existe una agresión calificada como acoso por el juez y que no entra dentro de nuestro protocolo, y eso habrá que revisarlo entre todos. Pero lo cierto es que esa persona ha sido atendida por el departamento de bienestar social y que el trato ha sido exquisito. Que tú te has acercado a ella para acompañarla, ideal!, pero si tú la has acompañado, no la puede acompañar yo. El departamento ha hecho su función, la ha citado y ha estado con ella y se hará lo que hay que hacer cuando a una persona es sometida a esta situación. Me parece un poco triste el verbalizar en todo momento el yo.”

Yolanda Hernandez Rodriguez (Beasaingo EH Bildu): “Si yo me he puesto en contacto con ella, ha sido porque desde el Ayuntamiento nadie lo ha hecho.”

Malu Vallés Fernández (EAJ-PNV): “Esta persona está en contacto con el departamento de bienestar social que es con quien debe de estar de una manera íntima. Diferente sería si se iniciara un procedimiento en el que el Ayuntamiento lo denuncie. Pero lejos de ella. Entiendo que ella debe quedar protegida. Lo que quiero decir es que si esta persona ha sido atendida por el departamento de bienestar de modo adecuado, ya está!. Otra cosa es que al margen de este caso decidamos modificar el protocolo. Debería salir del juego político.”

WEB ORRIAREN BIDEZ EMATEN DEN INFORMAZIOA

Nerea Manzísidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Salatu nahi nuke udalaren web orriari ematen zaion erabilpena eta EH Bilduri ematen zaio tratua. Bereziki udal batzarretako berrietan, adibide garbiak ikusten dira. EH Bilduren mezua ezkutatu egin nahi da behin eta berri. Horretarako lau adibide ekarri ditut:

- Foru funtsaren banaketaren inguruan, esaten da, udal gobernauak herritarrek engañatzea leporatzen dio EH Bilduri, baina geri testu osoan ez da aipatzen EH Bilduk mozio horretan zer aurkeztzen duen edo zer irakurketa egiten duen.

- HERRILAB programa bozkatu zenean, aipatzen da udalbatzar guztiak baiezkoa eman diola EH Bilduk izan ezik, baina ez da inolako aipamenik egiten EH Bilduren zergatiari eta kurioa da ze udalbatza berdinean bozkatu genuen Igartzako norakoa eta oposizio guztia aurka azaldu zen baina hori letra txikian azaltzen da eta ez da inolako irakurketarik egiten kontrako bozka horrena.
- Euskaraz ikasteko dirulaguntza. EH Bilduk aurka bozkatu du baina ez du aipamenik egiten EH Bilduk proposatutakoarekiko, hain zuzen ere, dirulaguntza horiek gehitzearena.
- Azkeneko ostiralean herrian egin ziren pintada batzuen inguruan. Nahiz eta jakin guk ere gertaera hori salatu zela, web orrian azaltzen da ondorengoa: *Beasaingo Udala osatzen dugun alderdi politiko guztiok, EH Bildu izan ezik....* Zoritxarrez gainera honek egiten duena da salatu beharrean salatu beharrekoa, fokoa hor jartzen du, hau da, pintadak salatu ordez, EH Bilduk ez dituela salatu, nahiz eta jakin guk ere salatu genituela. Oso erraza da jartzea EAJ eta PSOEek testua adostu dute salatzeko.

Oso nabarmena da. Beraz, udal gobernuari eta hemen dagoen komunikazio arduradunari eskatzen diogu, presente izateko udalaren web orria kudeatzen ari zaretela. Ez dela batzokiko orri bat eta beasaindarrek gardentasuna merezi dutela informazioan. Hau ez da. Ez da gezurrik esaten, baina informazioa mamitu egin behar da. Bestela ez gara gardentasunetaz ari eta ez da joku garbia. Gogoratu naiz Aitor nola esan zenidan herritarrek gutaz muturtuta zeudela eta ahalegin berezia egin behar genuela, baina jarrera hauek ez dute inondik inora laguntzen. Oso adibide garbiak dira. Denbora izan ezkerro begiratu. Argi dago udalaren komunikabide batetan ezin dela trataera hau eman, alderdi baten kontra egiten duelako oso nabarmen eta hori ez dugu baimenduko.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Aztertuko dugu. Esan dituzunak apuntatu ditut eta esango dizut. Irizpide politiko bate ez dago. Hori garbi esaten dizut. Ikusi beharko da zergatik edo zeintzuk diren arrazoiak. Eman denbora ikusteko eta guk gure deskarga egiteko.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.